



2009KO MAIATZAREN 11KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko maiatzaren hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Pakti Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Amagoia Naldaiz Mingo, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte, Lurdes Garmendia Guerra, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal, eta Javier Moreno Gonzalez de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren 2009ko ekainaren 7an egingo diren Europako Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Hauteskunde Erregimen Orokorrekoa den Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta besterik gabe, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

